



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

## **BARIK MOBILE PROIEKTU PILOTUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

### **1. ERREGISTRATZEKO BALDINTZAK**

- Barik Sistemako [Gazte](#) erabiltzailea izatea (26 urte baino gutxiago edukitzea eta Bizkaian errolatuta egotea), bai eta normalean Gazte 70 edo Gazte Oro tituluekin bidaiatzea ere.
- Izena emateko, jo [miBarik](#) webgunera.
- Barik txartel pertsonalizatu eta aktibo bat edukitzea.
- Honako hau duen telefono mugikor bat edukitzea: NFC teknologia eta Android 8.0 sistema eragilea edo hori baino berriago bat.
- Proba pilotuan parte hartzeko eskaera egitea. BGP arduratuko da parte hartzea onartzeaz, baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero.

### **2. BARIK MOBILE APLIKAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA PROBA PILOTUAN**

Barik Mobile aplikazioari esker, Gazte 70 edo Gazte Oro tituluekin bidaiatu ahal izango duzu, eta, lehen aldiz kargatu ostean, diru-zorroarekin bidaiatzeko aukera ere izango duzu. Barik txartel fisikoa diru-zorro gisa soilik erabili ahalko da.

BGPk parte hartzeko eskaera onartzen duenean, mezu elektronikoko bat bidaliko du bete behar diren jarraibideekin:

1. San Mameseko Bezeroentzako Arreta Bulegora joan Barik txartel fisiko pertsonalizatuarekin, bertan proba pilotuaren egokitzapena grabatzeko. Aldi baterako tituluren bat badu, tituluak agortuta egon behar du. Bezeroen Arretarako Bulego honetara aurrez aurre joan ezin baduzu, bidali mezu elektronikoko bat [barikctb@cotrabi.eus](mailto:barikctb@cotrabi.eus) helbidera. Zure arazoa konpontzen lagunduko dizugu.
2. Barik Mobile aplikazioa doan instalatu (Google Play).
3. Aplikazioan erabiltzailea eta pasahitza sartu ([miBarik](#) plataformako berberak).
4. Gazte 70 edo Gazte Oro titulu bat erosi aplikaziotik edo [BGPren](#) webgunetik. Horretarako, Bizum bitartez edo kreditu txartelarekin ordaindu behar da. Ondoren, hasi mugikorrarekin bidaiatzen. Behin-behineko titulua lehen aldiz kargatu ostean, zure diru-zorroa ere kargatu ahal izango duzu.

Barik Mobile aplikazioak Barik txartelaren abantaila eta baldintza guztiak eskaintzen ditu, baina



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

zure telefono mugikorretik. Barik Mobile proiektuan, Gazte 70 eta Gazte Oro behin-behineko tituluek eta diru-zorroak txartel fisikoko tituluen [araudi](#) berbera beteko dute.

Segurtasun-arrazoiak direla eta, Barik Mobile ezin izango da beste telefono mugikor batera transferitu, salbuespen kasuetan izan ezik eta mugekin (aldaketa bakarra hilean, adibidez: telefonoa apurtu edo galdu delako). Gainera, aldaketa egiterakoan, denbora-mugak egon daitezke (12 ordu, gehienez ere).

Barik Mobile proba pilotuan, aplikazioaren baliozkotasun-aldia ez bada automatikoki eguneratu, berriaz eguneratu beharko duzu, astean gutxienez behin.

Erabiltzaileak izango du mugikorra piztuta eta bateriarekin mantentzeko ardua baliozkotzea egiteko unean, bidaiatzeko unean eta ikuskatzaileak eskatzen dion kasuetarako. Hala egiten ez badu, txartel egokirik gabe bidaiatzen ari dela joko da.

Barik Mobile plataforman aldi baterako titulua blokeatzen bada, erabiltzaileak aplikazioaren bitartez edo San Mameseko Bezeroentzako Arreta Bulegora (Termibus) joanda desblokeatu ahal izango du.

Barik Mobilen behin-behineko tituluko guneak handitu nahi izanez gero, erabiltzaileak aplikazioa erabili ahalko du, edo San Mameseko Bezeroen Arretarako Bulegora joan (Termibus).

Proba pilotuak iraun bitartean, erabiltzaileek San Mameseko Bezeroentzako Arreta Bulegora joan behar dute izapide hauek egiteko: Barik Mobile aplikazioan alta eman, zonak aldatu eta Barik Mobile Aplikazioari lotutako telefono-zenbakia aldatu.

### **3. GORABEHERAK BARIK MOBILE ERABILTZERAKOAN**

Gorabeheraren bat gertatzen bada, erabiltzailea lehenbailehen jarri beharko da harremanetan BGPrekin ([barikctb@cotrabi.eus](mailto:barikctb@cotrabi.eus) edo 94 685 5000)

Telefono mugikorra galtzen badu edo lapurtu egiten badiote, erabiltzaileak Barik Mobile blokeatu ahal izango du, bai [miBarik](#) plataformaren bitartez, bai Bizkaiko Garraio Publikoko Arreta Bulegoetara deituz (94 685 5000).

### **4. ZERBITZUTIK BAJA EMATEA**

Erabiltzaileak nahi duenean eman ahal izango du baja proiektu pilotutik. Horretarako, San Mameseko Bezeroentzako Arreta Bulegora joan beharko du.

### **5. PARTE-HARTZAILEEN LAGUNTZA**

BGP jarriko da parte-hartzaileekin harremanetan (inkestak, galdetegiak, ...), eta, horrela, esperientziaren balorazioa jasoko du, bai eta iradokizunak bildu ere, betiere, Barik Mobile



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

zerbitzua hobetzen laguntzeko. Parte-hartzaileek BGPri erantzuteko konpromisoa hartzen dute.

Proiektu pilotuak iraun bitartean, BGPk honako hauek egiteko eskubidea izango du: funtzionaltasun berriak txertatu, Barik Mobile aplikazioarekin bateragarriak ez diren mugikorren erabilera mugatu, proiektu pilotua amaitzen denean zerbitzua ematen jarraitu edo behin-behinean edo behin betiko eten, beharrezkoa izanez gero. Edonola ere, behar den moduan jakinaraziko die proba pilotuko parte-hartzaileei.

BGPk eskubidea izango du Barik Mobile modu desegokian erabiltzen duten erabiltzaileak proba pilotutik kanpo uzteko.

Telefono mugikorretarako aplikazioa “dagoen dagoenean” banatuko da; beraz, ez dira BGPren ardura izango aplikazioa telefono mugikorrean erabiltzean edo instalatzean egiten diren zuzeneko edo zeharkako kalteak.

## **6. ZOZKETA BARIK MOBILE PROBA PILOTUKO PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN**

Barik Mobile proba pilotua amaitzen denean, BGPk hiru sari zozkatuko ditu: garraio publikoan hiru hilabetez doan ibiltzeko sari bana ([zozketaren oinarriak](#)) parte-hartzaileen laguntza saritzeko asmoz.